#### **II. TITULUA - ELKARTEEN SUSTAPENA.UDALEKO HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ETA ERABILERA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK.**

I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK

II. KAPITULUA - HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK

III. KAPITULUA - UDAL-ONURA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK

IV. KAPITULUA - HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ERAKUNDEEN UDAL-ERREGISTROA

#### **III. TITULUA - HERRITARREN PARTE-HARTZEA.**

### **AZKEN XEDAPENA**

## ZIOEN AZALPENA:

Parte-hartze prozesuaren definizioa.

Araudi honen ondorioetarako, parte-hartze prozesutzat hartuko dira modu integralean honako fase hauek dituzten prozesuak:

- a) Informazio-fasea. Horren bitartez, parte-hartze prozesuaren ardatz den gaiaren edo proiektuaren eragina jasango duten herritar guztiei informazioa helarazi nahi zaie, metodologia-teknika egokiak erabiliz.
- b) Herritarren eztabaida-fasea. Horren bitartez, metodologia egokiak erabiliz, diagnostikoa, eztabaida eta herritarren proposamenak sustatu nahi dira.
- c) Itzulketeta-fasea. Horren bitartez, parte hartu dutenei eta, oro har, gizarte osoari, prozesuren emaitzen berri ematen zaie.

Parte-hartze prozesuaren deskribapena.

### 1. Oinarrizko ezaugarriak eta printzipioak.

Gero eta udal gehiagok duten erronka da ohiko lan egiteko moduekin koherentea den eta erakundeak eskaintzen dituen baliabideak aprobeztatzen dituen egitura global bat ezartzea, herritarren parte-hartze eraginkorra ahalbidetzeko. Gueñesko Udala ere errealitate horren jakitun da; hori dela eta, herritarren parte-hartzea pixkanaka erakundearen txertatzeko aurrerapausoak ematen saiatzen ari da, Gobernu Irekiaren Estrategia baten baitan.

Parte-hartze ereduak honako ezaugarri hauek izango ditu:

- j. Guztiz koherentea izatea Gobernu Irekiaren, gardentasunaren eta abarren alorrean Udaleko sail guztiek garatutako ekimenekin.
- k. Herritarren interesekoak diren proiektu eta ekimenekin lan egitea; proiektu edo ekimen horiek benetako eragina izango dute epe labur-ertainean hartzen diren erabakiei dagokienez.
- l. Lankidetzaren espazioa eta -prozesu plural, ireki eta inklusiboetan oinarrituta egotea; izan ere, pluraltasun hori ezinbestekoa da inoiz entzuten ez diren ahots horiek ere inplikatu ahal izateko.
- m. Zenbakiei dagokienez handia den eta gizarteko kideei dagokienez askotarikoa den parte-hartzea ahalbidetzea, behar bezala antolatutako, planifikatutako eta egituratutako elkarlanerako askotariko kanal eta espazioen bitartez (foroak, kaleko dinamika, tailerrak eta talde-dinamika, bilera irekiak, informazio-hitzaldiak, kontsultak, inkestak, e-partaidetzarako mekanismoak, etab.).
- n. Eredu errealista izatea, gure udalerraren idiosinkrasiara egokituta egotea, egitura sendoa izatea eta, beste ezeren gainetik, eraginkorra izatea.

- o. Parte-hartzean konfiantza berreskuratzeko aukera ematea, ekintza zein proiektuetan zuzenean eragiteko gaitasunaren bitartez.
- p. Irizpide orokor komunak ezartzea, sor daitezkeen herritarren parte-hartzerako espazio, mekanismo eta ekimenentzat.
- q. Aldi berean eta modu egoki eta eraginkorrean integratzea parte-hartzeko aurrez aurreko espazioak eta teknologia berriak (parte-hartzeko atariak, etab.).
- r. Herritarrak konbentzitzea parte hartzea erabilgarria eta eraginkorra dela, bai pertsonarentzat bai gizartearentzat, eta aukera ematea parte-hartze prozesuen planifikazioan eta ondorengo ezarpenean parte hartzeko.
  - Inklusiboak izango dira, askotariko interesak dituzten taldeen eta pertsonen proposamenak jasotzeko bideak eta dinamikak barne hartzen dituztelako.
  - Gardenak izango dira, gaiari buruzko adostasunak eta desadostasunak fideltasunez islatzen dituztelako, baita horiek lortzeko baliabideak ere.
  - Eskuragarriak izango dira, emaitzak herritarrek ulertzeko moduan aurkeztuko direlako.
  - Eragileen arteko lankidetzak sustatuko dute; eskura dauden kanalak eta bitartekoak erabiliko dituzte ahalik eta kolektibo gehienengana iristeko, xede bera duten bitartekarien bidez. Ahaleginak eta bitartekoak ez bikoizten saiatuko dira, bai eta funtsezkoak ez diren baliabideak ez erabiltzen ere.
  - Jardunbide egokien eredu izango dira, eraginkorrak direlako eta herritarrekin helburuak zehazteko prozesuen oinarrizko printzipioak errespetatuko dituztelako.
  - Jende asko eta askotarikoen parte-hartzea ahalbidetuko dute.
  - Operatiboak eta eraginkorrak izango dira, ekimen parte-hartzaileetatik ondorioztatutako azken erabakiek epe labur-ertainean izan duten benetako eragina argitara aterako dutelako.

## 2. Gueñesko Udaleko Herritarren Parte Hartzerako eredua:

Ez dago errezeta edo formula magikorik bermatzeko lan horretan arrakasta izango dugunik. Hori buruan izanik, lan gogor horretan porrot egiteko arriskuak murriztu ditzaizkete zenbait premisa planteatu ditzaizkigu. Hauek dira:

- g. Ezinbestekoa da dagoeneko badagoenari balioa ematea, garatzea eta behar duen egitura eta koherentzia ematea, gaiak teilakatu ez daitezkeen eta eztabaida guneak biderkatu ez daitezkeen. Horrez gain, laneko lehentasunak zehaztu behar dira eta agintaldi bakoitzean gauzatuko diren ekintza zein neurriak behar bezala planifikatu beharko dira.
- h. Galderen bidezko parte-hartzeko egitura egonkorra baliagarria eta beharrezkoa dira; hala ere, hori ez da nahikoa. Izan ere, horiek bakarrik erabilita, oraindik ere kanpoan geldituko lirateke eragiten

dieten gauzei buruz esateko asko duten pertsona ugari. Gai bakoitzean adituak direnen iritzia behar dugu, baina baita "bizipenek aditu bihurtutako adituk" diren pertsonak ere. Pertsona horiek haien auzoa eta hurbileko ingurunea xehetasun osoz ezagutzen dute, eta hori ezinbestekoa da Gueñesko Udalaren neurriko Administrazio batentzat.

- i. Ez zaie zilegitasunik emango biltzar erako parte-hartzeko erduei, ez eta itxiak diren edo zalantzazko aniztasuna duten erduei ere, eredu horiek gure gizarteko sektore oso zehatz eta espezifikoaren diskurtso eta jarrerari protagonismo handiegia ematen badiete eta gizartearen gainerako kideak kanpoan uzten badituzte.
- j. Herritarren interesekoak diren proiektu eta ekimenekin lan egingo dugu; proiektu edo ekimen horiek benetako eragina izango dute epe labur-ertainean hartzen diren erabakiei dagokienez.
- k. Benetan askotarikoak, irekiak eta inklusiboak diren parte-hartzeko prozesu eta espazioak martxan jartzea. Prozesu eta espazio horiek era askotako pertsona ugariri eman beharko diote parte-hartzeko aukera, hainbat modutan eta hainbat kanalen bitartez (foroak, panelak, kaleko dinamikak, tailerrak, bilera irekiak, informazio-hitzaldiak, kontsultak, inkestak, e-partaidetzarako mekanismoak etab.); izan ere, aniztasun hori funtsezkoa da, gure ustez, askotan entzun gabe gelditzen diren beste ahots horiek ere inplikatzeko.
- l. Hori modu antolatu, planifikatu eta egituratuan egin behar da. Ezinbesteko plangintza horri esker, lana bizkorragoa eta eraginkorragoa izango da. Plangintzarik egiten ez bada, eguneroko landinamika geldiaraz dezakete martxan dauden parte-hartzeko prozesuek edo, bestela, parte-hartzaile hitza duen edozer gauza egiten bukatuko dugu, informazioa eskuratzeko, eztabaidatzeko eta adostasunak erdiesteko denborarik hartu gabe.

## **ATARIKO TITULUA**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- Xedea.

Araudi honen xedea da herritarrek udal-kudeaketan parte hartzeko duten eskubidearen erabilera arautzea. Horretarako, herritarren eta herritarren parte-hartzerako erakundeentzako forma, bitarteko eta informazio- eta partaidetza-prozedurak ezarriko dira, kudeaketa horri dagokionez.

2. artikulua.- Aplikazio-eremua.

3. Araudi hau udal-administrazioari aplikatuko zaio.

4. Bertan arautzen diren eskubideak Gueñesko herritar guztien eta Gueñesen egoitza soziala duten herritarren parte-hartzerako erakundeen esku daude.

3. artikulua.- Printzipio nagusiak.

3. Hauek dira Udaleko praktika administratiboaren printzipio nagusiak:

e) Udal-kudeaketan herritarren parte-hartzea era eraginkorren garatzea.

f) Mugimendu asoziatiboa sustatzea (bai eta boluntario-lana ere).

g) Informazio gehiago ematea udal-jarduera eta -zerbitzuei buruz, bai eta udal-planekin lotutako jarduera eta proiektuak kudeatzen dituzten erakunde eta elkarteei buruz ere.

h) Herritar guztiek udal-baliabideak erabiltzeko aukera dutela bermatzea.

4. Udalbatzak auto-antolakuntzarako bere ahalmena erabiliz ezartzen dituen parte-hartzeko forma, bitarteko eta prozedurek ezingo dituzte inola ere Legeak ezarritako terminoetan udal-organoei dagozkien erabaki-gaitasunak eragotzi.

## **I. TITULUA**

### **HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BURUZKO ESKUBIDEAK.**

#### I. KAPITULUA

##### XEDAPEN OROKORRA.

#### 4. artikulua.- Zerrendaketa.

Gueñesko herritarrek eta herritarren parte-hartzerako erakundeek, bai eta Toki-erregimenari eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko Lege Orokorrean jasotzen diren pertsonak ere, eskubide hauek dituzte, Araudi honetan ezarritako terminoetan:

- f. Informazioa eskuratzeko eskubidea.
- g. Herri-ekimenerako eskubidea.
- h. Osoko bilkuretan aktiboki parte hartzeko eskubidea, mozioaketa galde-eskeak aurkeztuz.
- i. Udal-baliabideak erabiltzeko eskubidea.
- j. Herri-kontsultarako eskubidea.

#### II. KAPITULUA.

##### INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

#### 5. artikulua.- Edukia.

Herritar guzti-guztiek eskubidea dute informatuta egoteko eta udal-gobernuari eskaerak edo eskabideak aurkezteko, bere eskumeneko arloei dagokienez. Eskubidea dute udal-jarduketei buruzko azalpenak eskatzeko, eta udal-jarduerak, -programak eta -zerbitzuak ezagutzeko. Eskubidea dute artxibo publikoetara sartzeko, honako hauek ezarritako mugez gain, bestelako mugarik izan gabe: Konstituzioa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legedi orokorra, eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko legedia.

#### 6. artikulua.- Udalaren publizitatea erakundearen webgunean.

Udalaren webgunean honako hauek argitaratuko dira:



12. Osoko bilkuretako eguneko aztergaien zerrendak eta aktak.
13. Udaleko Aurrekontu Orokorrak, likidazioa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak igorritako txostenak.
14. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra.
15. Enplegu publikoaren eskaintzak.
16. Udaleko kontratatzailearen profila, Sektore Publikoko Kontratuen Legean aurreikusitako baldintzetan.
17. Indarreko udal-ordenantza eta araudiak.
18. Udal-izapideen eta sareko izapideen gida.
19. Udal-eskumenak jasotzen dituen zerbitzuen zerrenda.
20. Udalaren osaera politikoa eta udal-arlo eta -sailen arduradunak.
21. Udal Erregistroan inskribatutako herritarren parte-hartzerako erakundeen zerrenda.
22. Parte-hartzeko tailerrak.

#### 7. artikulua.- Herritarrentzako informazioa.

4. Udalak informazio ahalik eta zabalena emango du bere jarduerari buruz, bai eta udal-planekin eta tokiko bizitzan herritar guztien parte-hartzearekin zerikusia duten proiektu eta jarduerak kudeatzen dituzten herritarren parte-hartzerako erakundeek egiten duten jarduerari buruz ere.
5. Herritar guztiek dituzte, Udalarekiko beren harremanean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen legedi orokorrak ematen dizkien eskubideak, informazioa edo orientazioa jasotzeko eskubidearen erabilerari dagokionez, honako hauen inguruan: proposatzen diren proiektu, jarduketa edo eskaeren baldintza juridiko eta teknikoak. Hortaz, horiek eskatu ahal izango dituzte, horrela:
  - a) Udalari mezu elektronikoa bidaliz, Herritarren Arretarako udal-bulegoen bidez edo aurreko artikuluan aurreikusitakoaren arabera webgunean zehaztutako arloaren bidez, dagokion auzia adieraziz.
  - b) Eskaerari buruzko erantzuna zentzuzko epean jasotzeko eskubidea izango dute. Epe hori ez da hilabete baino luzeagoa izango, auzia adierazten den unetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, ezingo da inolako jarrerarik zigortu eta ez da inolako erantzukizunaren pean eroriko, jarrera hori Udalak berak bide honetatik eskainitako araudiaren arrazoizko interpretazio batek babesten badu.
6. Herritarrentzako Arreta Bulegoak egongo dira, herritarrei, oro har, arreta eskaintzeko. Hala, bide posible guztien bitartez -zuzenean, telefonoz,

telematikoki, etab.- beharrezkoak diren gai guztiei buruzko informazioa emango zaie.

#### 8. artikulua.- Ez onartzeko arrazoiak.

Udalak uko egin diezaioke eskaera izapidetzeari. Horretarako, arrazoitu egin beharko du, eta hauek dira ukatzeko arrazoiak:

- d. Eskaeraren gaia udal-eskumena ez izatea.
- e. Eskaerari izapidetze-administratibo zehatz bat egokitzea.Kasu horretan, uko egiteko ebazpenean adieraziko da zein den aplikatzeko araudiaren arabeko izapide zehatz hori.
- f. Funtsean berberak diren eskariak lehenago ere tratatu izana.Kasu horretan, ukatzeko ebazpenean adieraziko da zein izan diren aurreko eskaeren emaitzak.

#### 9. artikulua.- Ondorengo izapideak.

3. Informazio-eskaera bat izapidetzeko onartu ondoren, autoritate edo organo eskudunak erantzuteko eta erantzuna jakinarazteko betebeharra izango du, gehienez hilabeteko epean, aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita.
4. Ebazpenaren bidez, horri buruz hartu diren neurriak edo planteatu diren jarduketak, edo eskaera aintzat ez hartzeko arrazoiak azalduko dira.

### III. KAPITULUA.

#### HERRI-EKIMENERAKO ESKUBIDEA

#### 10. artikulua.- Edukia.

Parte-hartzeko forma bat da herri-ekimena, eta horren bidez herritarrek Udalari Udalaren eskumeneko eta interes publikoko jarduera edo ekintza jakin bat egiteko proposamena egiten diote.Honako ekimen hauei dagokienez, besteak beste:

- c. Tokiko erabakiak, ordenantzak eta araudiak egiteko bultzada.

- d. Interes publikoko gaietan jarduteko proposamenak, dagokion kasuan, finantza-proposamena ere adierazita.

#### 11. artikulua.- Legitimazioa.

Ekimena Gueñesko Kontzejuko herritarrek gauzatu ahalko dute, udal-hauteskundeetan sufragio-eskubidea badute, eta gutxienez, kontzejuan bizi diren herritarren % 10a ordezkatzen badute.

Nolanahi ere, herritarren parte-hartzerako erakunde eta pertsona guztiek, herri-ekimenerako ezarritako legitimazio betekizunak betetzen ez badituzte ere, entzunaldia eskatu ahalko dute, bai eta Osoko bilkuran parte hartzeko baimena ere;Udalbatzako politika edo kudeaketa arloetako arduradunek zuzenean entzun ahal izan dezaten euren proposamena.

#### 12. artikulua.Izapidetzea.

- 4. Eskaera idatziz egingo da, egilea eta edukia jasota gera daitezen.Eginbideetarako ordezkarri bat izendatuko dute.Argi azalduko da zer jarduketa eskatzen den, beharrezkotzat jotzen diren bitarteko ekonomiko edo pertsonalak, eta hala badagokio, eskatzaileak eskaintzea aurreikusi dituen bitartekoak ere bai.Tokiko herri-kontsultarako proposamena eraman ahal izango dute. Hori Toki Araubidearen oinarritzko legedian ezarritako prozedura eta betekizunen arabera izapidetuko da.
- 5. Eskaerak aurreko artikuluan ezarritako legitimazio betekizuna betetzen badu, horrela jardungo da:
  - c. Tokiko Gobernu Batzordeak proposamenak baloratuko ditu; horretarako, agindu-planarekiko duten bateragarritasuna aztertu eta bidezkotzat jotzen duen erabakia hartuko du.Ekimen bat abiaraztea edo proiektua izapidetzea ukatzen bada, era arrazoitu eta indibidualean jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde sustatzaileei.
  - d. Izapidetzeko onartzen diren sustapen-ekimenak, aurreko ataletan aurreikusitako testuak egiteko, Osoko bilkuran eztabaidatu beharko dira, dagokion informazio batzordean aldeztatik jakinarazi ondoren. Gainera, idazkaritza edo esku-hartze sailak (gaiaren arabera) legezketasun-txostena egin beharko du.
- 6. Ekimenerari dagokionez organo eskudunak ez badu inolako erabakirik hartu behar, eskatzaileei beren eskaera atzera botatzeko erabakia jakinaraziko

zaie, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako ondoretarako.

#### IV. KAPITULUA.

#### OSOKO BILKURETAN MOZIOAK ETA GALDE-ESKEAK AURKEZTEKO ESKUBIDEA.

13. artikulua.- Osoko bilkuretan mozioak aurkezteko eskubidea.

1. Herritarren interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten herritar, elkarte, erakunde edo udal-organismo guztiek eskubidea dute beren intereseko udal-gaiei buruzko mozioak aurkezteko.
2. Mozioak idatziz aurkeztuko dira, Udalaren Erregistro Orokorrean, eta bi atal izango dituzte: azalpena eta eman beharreko ebazpen-proposamena. Mozio horren kopia bidaliko zaie alderdi politiko guztien bozeramaileei.
3. Alkatetzak Gueñesko Udaleko idazkariari eta gaiaren arabera dagokion Informazio Batzordeari igorriko dio, horrek ebazpena eman dezan, edo osoko bilkurara eramango da zuzenean.
4. Mozioa izapidetutakoan, Udalbatzaren bilkurako aztergaien zerrendan sartuko da, hala badagokio, dagokion Informazio Batzordearen irizpenarekin batera. Herritarren parte-hartzerako erakundeek herritarren interesak defendatzeko mozioak aurkeztu ahal izango dituzte AJAko 228. artikuluan ezartzen denaren arabera; hau da, saioa hasi aurretik alkatetzari eskaera eginez eta gai horri buruzko eztabaida baino lehen hitza hartuz. Gainerako herritarren parte-hartzerako erakunde edo pertsona fisikoei dagokienez, entzuteko izapidea emango zaio hala eskatzen duenari. Horri esker, ahoz azaldu ahalko ditu mozioaren edukia eta jatorria, Alkatetzak bidezkoztat jotzen duen epean, osoko bilkura formalki hasi baino lehen. Geroko eztabaida eta bozketa korporazioko kideei dagokie soilik, Udalbatzaren bilkuren funtzionamendurako arau orokorrak aplikatuta, eta bertaratutako publikoak eta mozioa aurkeztu duenak ezingo dute bozketan esku hartu.
5. Mozioari buruzko eztabaida eta bozketa Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduan xedatutakoarekin bat etorritik egingo dira.

14. artikulua.- Galde-eskeak egiteko eskubidea.

5. Hauek dira herri-ekimeneko galde-eskeak aurkezteko bideak, AJAko 228.2 artikulua araberako: idatziz, Udalbatzaren erregistro orokorraren bidez; edo osoko bilkuran, bertaratutako publikoari galde-eskeak egiteko txanda ematen zaionean.
6. Idatziz egindako galde-eskeak hurrengo Udalbatzaren bilkuran helaraziko dira, gutxienez, bilkura egingo den eguna baino zazpi egun baliodun lehenago aurkezten badira. Hori baino beranduago bidaliz gero, Alkatetzak aukera du galde-eskea segidan datorren osoko bilkuran jorrazteko edo hurrengo bilkurarako uzteko. Nolanahi ere, Alkatetzak, talde politikoei entzun ondoren eta ebazpen arrazoitu bidez, herri-ekimeneko galde-eskeren bat baztertu ahal izango du.
7. Ez dira galde-eske pertsonalak onartuko, ez eta errespeturik agertzen ez dutenak edo talde politiko jakinei zuzendutakoak ere.
8. Idatziz egindako galde-eskeek osoko bilkuretan aurkezten diren tratamendu bera jasoko dute; idazkariak irakurri eta Udalbatzak erantzuna emango die, publikoarentzako txanda irekian.

## V. KAPITULUA.

### UDAL BALIABIDEAK ERABILTZEKO ESKUBIDEA.

#### 15. artikulua - Edukia.

4. Herritar eta herritarren parte-hartzerako udal-erakunde guztiek dute erabilera orokorreko udal-baliabideak erabiltzeko eskubidea, euren xedearekin bat etorritik. Muga bakarrak espazio eta denbora erabilgarriak eta udal-ordenantzek ezarritakoak izango dira.
5. Zerbitzu publiko bati atxikitako udal-instalazioak barne-erregimeneko udal-araudietan xedatutakoaren arabera erabiliko dira.
6. Udalak sustatuko du herritar guztiek eskuragarri izan ditzatela komunikazio eta informazioaren teknologiak. Horretarako, sarbide-puntu publikoak jarriko ditu, udal-bulego eta -ekipamenduen sarearen bitartez.

## VI. KAPITULUA.

### HERRI-KONTSULTARAKO ESKUBIDEA.

#### 16. artikulua.- Edukia.

7. Udalak, osoko bilkuran aho batez hala erabakitzen badu eta organo eskudunak baimena ematen badu, Alkatetzaren bidez aukera izango du herritarrentzat garrantzitsuak diren udal-eskumeneko gaiiei buruzko herri-kontsultak antolatzeako, toki-erregimeneko oinarrizko legedian debekatutako esparruei buruzkoak direnean salbu.
8. Alkateari dagokio era horretako kontsultak deitzea. Aurretik, Udalbatzak honako hauek onetsi beharko ditu, gutxienez: kontsultaren xedea izango den xedapen, politika edo erabaki publiko osoa, kontsultan egingo den galdera edo egingo diren galderak eta kontsultaren data; kontsulta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta laurogeita hamar egunetik urtebeterako epean egin beharko da.
9. Udal-talde politikoen ekimenak eragotzi gabe, osoko bilkuran bozkatu beharko dira herritarren ekimenetik jaio diren eta lehenengo atalean aipatzen diren herri-kontsulten eskaerak. Ekimen horiek aurrera ateratzeko, udalerrian erroldatutako herritarren ehuneko hamarren sinadurak beharko dira gutxienez. Baldintza hori betez gero, Udalak izapidetze-prozedura abiaraziko du eta ekimena zehaztuko du.
10. Salbuespen gisa, kontsulta-prozesuaren xedearen arabera, kontsultan udalerrian bizi diren atzerritarrek eta bozketaren unean 16 urte edo gehiago dituzten adingabeek ere parte hartu ahal izango dute. Kasu horretan, bozkatzaileen errolda biztanleen udal-erroldarekin osatuko da, eta tokiko erakundeko idazkariaren eskumena izango da egokitzapen-lan hori egitea.
11. Kontsultaren emaitza loteslea izango da kontsultarako onetsitako herritarren erroldako % 50ek edo gehiago parte hartzen badute eta baieztako botoen % 50a baino gehiago jaso badu. Baldintza horiek betetzen ez badira, kontsultaren xedea den erabakia udal-gobernuaren esku geldituko da.
12. Udalak honako bitarteko hauek erabili ahal izango ditu herritarren iritzia jasotzeko: inkestak, iritzi-azterketak, gaiak jendaurrean jartzea, teknologia berriak erabiltzea eta herritarren iritzia jasotzeko beste edozein bide.

## VII. KAPITULUA

### HERRITARREN ETA BARNE ARAUDIAREN BATZORDEAREN ESKUBIDEAK DEFENDATZEA.

#### 17. artikulua.- Kexak, iradokizunak eta erreklamazioak aurkeztea.

1. Udalerriko edozein herritar, erakunde edo elkartek eskubidea du Barne Araudiaren Batzordera jotzeko, tratu bidegabea jaso badu edo bere eskubide

nahiz zilegizko interesak urratu badira, organo eskumenaren aurrean ezarritako legezko prozedura agortu badu.

2. Jasotzen den iradokizun edo erreklamazio bakoitzeko espediente bat irekiko da, eta organo horren idazkariak bideratuko du.
3. Erreklamazioak, kexak edo iradokizunak ez du inolaz ere administrazio-errekurtsoaren izaera edukiko, ez eta lan-arloko ekintzen edo ekintza zibilen aurreko erreklamazio-izaerarik, erreklamazio ekonomiko-administratibo izaerarik edo ondare-erantzukizunaren arloko erreklamazioaren izaerarik ere. Eduki ekonomikoa duten erreklamazioak, prozedura ireki bati buruzkoak edo udal-egintza bat berrikustea xede dutenak kanpo geldituko dira.
4. Kexa, erreklamazioa edo iradokizuna jasotakoan, ez onartzea ere gerta daiteke. Arrazoitu egin beharko da, eta hauek dira arrazoiak:
  - k. Bidezko interesik ez izatea.
  - l. Erreklamazio anonimoak izatea. Ondore horietarako, bide telematikoz igortzen direnek onartutako sinadura elektronikoz sinatuta egon beharko dute.
  - m. Prozeduraren erabilera gehiegizkoa edo fede txarrekoa egitea, administrazio-zerbitzuei nahasmena eragiteko aukerarekin.
  - n. Hura izapidetzearen eraginez hirugarrenen zilegizko eskubideak kaltetzea.
  - o. Argi eta garbi oinarririk ez izatea.
  - p. Izatez desberdinak diren kontuak ebaztea.
  - q. Udal-eskumenen alorretik kanpoko gaiei buruzkoak izatea.
  - r. Udal-organoen kontrol politikoari buruzkoak izatea.
  - s. Partikularren artean abian diren auziei buruzkoak izatea.
  - t. Prozedura ireki bat egotea edo errekurtsu administratibo nahiz judicial bat abiarazi izana.
5. Kexa izapidetzea onartzen bada, eragina jaso duen zerbitzuaren txostena jasoko da, eta txosten hori hilabeteko epean aztertu beharko da. Egokitzat jotzen diren gainerako agiriak ere erantsi beharko dira.
6. Erreklamazioa, kexa edo iradokizuna, eragina jaso duen zerbitzuaren txostenarekin eta erantsitako agiriekin batera, Barne Araudiaren Batzordera igorriko da, hark txostena eta egoki deritzen gomendioak eman ditzan.

## **II. TITULUA**

### **ELKARTEEN SUSTAPENA. UDALEKO HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ETA ERABILERA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK.**

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 18 artikulua.- Xedea.

Titulu honen xedea da Udalak herritarren parte-hartzerako erakundeekin izango dituen harremanen erregimen juridikoa arautzea, bai eta horiei dagozkien eskubideak, Herritarren Parte Hartzerako Erakundeen Udal Erregistroa eta horren ondorioak arautzea ere.

### 19.-artikulua.- Definizioak.

4. Honako hauek dute herritarren parte-hartzerako erakundeen izaera: irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak eta indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko elkarteak edo kolektiboak, haien xedea herritarren interes orokorrak edo sektorekako interesak defendatzea bada, interes horren izaera edozein izanik ere (ekonomikoa, soziala, kulturala, zientifikoa, hezkuntzaren arlokoa, aisialdikoa, gazteena edo antzekoa), edozein forma juridiko eta izaera izanik ere, horien xedeak lotura zuzena badu Gueñesko Udalaren eskumen-esparruarekin.
5. Herritarren parte-hartzerako erakundeen erregistro bat egingo da. Erakundeak erregistro horretan izenik ez emateak ez du inolaz ere eragotziko Gueñesko Udalak deitutako prozesuetan parte hartzea.
6. Herritarren parte-hartzerako erakundeek haien jarduketa esparrua edo esparruak zehaztu beharko dituzte, baita proiektzioa ere, erregistro horretan izena ematen duten unean.

### 20. artikulua.- Aplikazio-eremua.

Araudi honen aplikazio-eremuan daude aurreko artikuluan definitutako herritarren parte-hartzerako erakundeak edo kolektiboak, honako hauek izan ezik:

- f. Merkataritza-zuzenbidearen mendeko erakundeak eta, oro har, helburu nagusia etekin ekonomikoak izatea dutenak, gero etekin horiek bazkideen artean banatzeko.
- g. Alderdi edo talde politikoak, enpresa-elkarteak eta erakunde sindikalak.
- h. Erljio-elkarteak edo -erakundeak.
- i. Profesionalen elkargoak.



- j. Organismo autonomoak, merkataritza-sozietateak edo Administrazio Publikoen mendeko bestelako erakunde autonomoak.

#### 21. artikulua.- Printzipio nagusiak.

1. Herritarren parte-hartzerako erakundeek askatasun osoz eta beraien borondatez emango dute izena Udal Erregistroan. Ezin da inolako elkarte, talde edo erakunderik behartu aipatu erregistroan inskribatzera edo bertan jarraitzera.
2. Herritarren parte-hartzerako erakunde baten kide izatea ez da, inondik inora, Udalak baztertzeko edo aldeko edo mesedeko tratua emateko arrazoia izango.

#### 22. artikulua.- Araubide Juridikoa.

Herritarren Parte Hartzerako Erakundeak honako hauek arautuko dituzte:

- d. Eraketari, inskripzioari eta barne araudiari dagokienez, aplikagarri zaizkien araudi orokorrek arautuko dituzte, elkarte zein erakundeen izaera, barne Estatutuak eta bertako gobernu-organoen onetsitako akordio baliiodunen arabera.
- e. Gainerakoekin izango dituzten harremanak, aldiz, ezar dakiekeen araudi zibilak arautzen ditu.
- f. Udalarekin dituzten harremanei dagokienez, Araudi honetan ageri diren xedapenek eta Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak.

## II. KAPITULUA

### HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ERAKUNDEEN ESKUBIDEAK.

#### 23. artikulua.- Eskubideak.

1. Udal Erregistroan ageri diren herritarren parte-hartzerako elkarteek honako eskubide hauek dituzte:
  - i. Osoko bilkuretan mozioak, eskaerak eta galderak aurkezteko eskubidea.
  - j. Osoko bilkuren eguneko aztergaien zerrenda jasotzeko eskubidea, hala eskatuz gero, eta ahalik eta arinen.
  - k. Eragiten dieten gaietan, informazio-batzordeak osatzen dituzten kideek entzunak izateko eskubidea.
  - l. Eskubideak egiteko eskubidea, eskatzeko eskubidea erabilita.

- m. Kudeaketa-erantzukizunak dituzten Udalbatzako kideek zuzenean entzuteko eskubidea.
  - n. Erabilera orokorreko udal-baliabideak erabiltzeko eskubidea, duten xedearen arabera.
  - o. Herri-ekimenerako eskubidea.
  - p. Araudi honetan berariaz ezarriko diren beste eskubide guztiak, herritarren parte-hartzea errazteko direnak.
2. Gainera, erakunde horiek honako eskubide hauek ere izango dituzte, Araudi honetan ezarritako baldintzetan:
- d. Diru-laguntzak jasotzekoa.
  - e. Udalaren lokalak eta komunikabideak erabiltzekoa.
  - f. Udalaren argitalpenak jasotzekoa.

#### 24. artikulua.- Diru-laguntzak.

- 6. Udalaren baliabideek ahal duten neurrian emango dira diru-laguntzak, diru-laguntzak emateko indarreko udal-ordenantzan xedatutakoaren arabera, Oinarri Orokorretan xedatutakoaren arabera eta, dagokionean, Udalbatzak onetsitako berezitasunen arabera, baita Aurrekontua Egikaritzeko Udal Arauan ezarritako irizpideen arabera ere.
- 7. Ondore horietarako, Udalak, urteroko aurrekontuetan, dagozkion aurrekontu-partida edo -partidetan, gutxieneko zenbateko bat gordeko du, Udaleko organo eskudunen arabera Udalak dituen baliabideak aintzat hartuta.
- 8. Diru-laguntzak emateko irizpideak honako hauen arabekoak izango dira: herritarren parte-hartzerako erakundeek duten ordezkaritza, erakundeek xedek herritarrentzat duten interesa edo erabilgarritasuna, erakundeek gaitasun ekonomikoaren autonomia, beste erakunde pribatu zein publiko batzuetatik jasotako laguntzak eta indarrean dauden Udal Araudietan ezarritakoak.
- 9. Udal-aurrekontuen kargura esleitutako diru-laguntzak jasotzen dituztenek jasotako funtsak nola aplikatu diren justifikatu beharko dute, diru-laguntza bakoitzari aplikatu beharreko araudian ezarritako epean.
- 10. Diru-laguntza jaso izanak ez die diruz lagundutakoei inolako eskubide subjektiborik emango, etorkizunean beste diru-laguntza batzuk jasotzeari begira.

#### 25. artikulua.- Udalaren lokalak edo komunikabideak erabiltzea.

6. Udalaren lokalak erabiltzeko, irabazi-asmorik gabeko elkarteei udal lokalak prekarioan lagatzeko oinarriak arautzeko indarreko ordenantza arautzailean xedatutakoa hartuko da kontuan, halakoak dauden kasuetan. Dena dela, erabiltzaileek modu arduratsuan erabiliko dute lokala, eta parte-hartzerako erakundea izango da instalazioetan gertatutako narriaduren erantzule.
7. Udalaren komunikabideen erabilera Udalak zehaztutako kudeaketa-irizpideei jarraikiz egingo da, eta eskura dauden komunikazio-baliabide eta -plataformen arabera.
8. Udalaren komunikabideak erabiltzeko, xede horretarako ezarritako barneko jardunbide-arauak errespetatu beharko dira eta, halakorik ez badago, Udalari idatziz eskatu beharko zaio, aldeztu aurretik, zerbitzu bakoitzak ezartzen duen epearekin.
9. Udalak abala edo bermea ezarri ahal izango die erabiltzaileei, udal bitartekoak egoki erabiliko dituztela ziurtatzeko.

#### 26. artikulua.- Argitalpenak jasotzea.

Herritarren parte-hartzerako erakundeek Udalaren argitalpenak, aldizkakoak edo bestelakoak, jasotzeko eskubidea dute, baldin eta erakundearentzat interesgarria baldin bada, bere helburu sozialak kontuan izanda.

### III. KAPITULUA UDAL-ONURA PUBLIKOKO ERAKUNDEAK

#### 27. artikulua.- Definizioa.

Gueñesko Udalak erabilera publikoko izendatu ahalko ditu Udal Erregistroan izena emanda dauden herritarren parte-hartzerako erakundeak, erakunde horiek, euren jardueren bitartez, interes orokorrak edo ongizate komuna lortzen laguntzen badute, eskuzabaltasunaren, altruismoaren, elkartasunaren eta aniztasunaren bitartez. Erakunde horiek gizarte-, hezkuntza-, zientzia-, kultura-, kirol-, osasun- edo gizadi-izaera izan beharko dute, eta garapenerako lankidetzan, haurren defentsan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren defentsan, tolerantziaren alde, ingurumena babesteko, ekonomia eta ikerkuntza sustatzeko,

euskara bultzatzeko, boluntariotza-lanak areagotzeko, kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko edo legeetan aurreikusten diren eta Udalaren jarduketak osatuz gauzatzen diren zereginak egin beharko dituzte, eta herritarren interesen esparruan herritarren parte-hartzea eta auzokideen elkarteen sorrera sustatu beharko dituzte.

## 28. artikulua.- Aitortzeko prozedura.

Honako hau izango da erakundea uda-onura publikoko aitortzeko prozedura:

1. Interesa duen erakundearen ordezkariaren idatziarekin hasiko da, eta honako hauek bidaliko dira, idazkiarekin batera:
  - g. Eskaera zertan oinarritzen den.
  - h. Herritarren Parte Hartzerako Erakundeak Udal Erregistroan inskribatzeko datuak eta elkartearen estatutuak.
  - i. Eskabidea egin aurreko bi urteetan egindako jardueren memoria.
  - j. Kide-kopuruari buruzko egiaztagiria.
  - k. Erakundearen zerbitzu eta jardueren onuradunak diren pertsonen kopuru eta ezaugarriak, dituzten giza baliabideak eta bitarteko materialak eta eskuratu nahi den aitortza behar bezala balioztatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio.
2. Eskabide horri buruzko informazioa emango dute gai horretan eskumena duten atalek; informazio hori dagozkion prozedurazko alderdietara (aurkeztutako agiriak zuzendu, ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez, etab.) eta lege alderdietara mugatuko da.
3. Espedientea dagokion Informazio Batzordeari igorriko zaio eta horrek dagokion irizpen-proposamena aurkeztuko du, Udalbatzak horri buruzko ebazpena eman dezan. Bere irizpenean, Informazio Batzordeak eskabidea baloratuko du hurrengo atalean adierazitako irizpideen arabera.
4. Udal-onura publikoko aitortza egokia den baloratzeko funtsezko irizpideak honako hauek izango dira:
  - f. Erakundea Gueñesko herritarrentzat interes publikoko eta sozialekoa izatea.
  - g. Erakundearen helburu soziala eta egindako jarduerak.
  - h. Ordezkagarritasun-maila.
  - i. Udal-intereseko jardueretan duen parte-hartze maila.
  - j. Aurrekari historikoak edota erakundeak udalerrian duen ibilbidea.

10. Udaltzako erabakiko du erakundea onura publikoko aitortu ala ez. Aitorpena ofizios sartuko da Udaltzako Erregistroan, eta horren publikitatea egingo da Udaltzako webgunean.

#### 29. artikulua.- Eskubideak.

Onura publikoko aitortzak, Udaltzako kasu bakoitzerako zehaztutako onurak izango ditu, hala nola:

- a) Bere dokumentu guztietan "Gueñesko Udaltzako onura publikoko aitortua" aipamena erabiltzea.
- b) Izaera fiskaleko salbuespenak, hobariak eta bestelako onurak, denak indarrean dagoen legediaren arabera adostuta.
- c) Bere jarduerarekin lotura zuzena duten xedapen orokorrak egitean entzunak izatea, baita jardura horientzat garrantzitsuak diren programak egitean ere.
- d) Diru-laguntzak banatzeko lehentasuna.
- e) Gueñesko Udaltzako aholkularitza jasotzea.

#### 30. artikulua.- Betebeharrak.

1. Honako hauek izango dira onura publikoko aitortutako erakunde betebeharrak:
  - d. Urteko kuotak aurkeztu beharko dituzte urtero Udaltzakoan, gehienez ere hiru hilabeteko epean, amaitu denetik aurrera zenbatzen hasita. Hala badagokio, jaso diren udaltzako funts publikoen aplikazioa zuri beharko da. Halaber, aurreko urtean egindako jarduerak deskribatzen dituen memoria ere aurkeztu beharko da.
  - e. Gueñesko Udaltzako eskatutako txosten eta dokumentazioak eman beharko ditu, bere helburuak betetzeko egin dituen jardueri buruzkoak badira.
  - f. Datuak eguneratuta izan beharko ditu Udaltzako Erregistroan.
2. Onura publikoko aitorpena baliogabetu egin ahal izango da, dela bere betebeharrak behin eta berrin eta modu larrian bete ez dituelako, dela aitorpena egitea eragin zuten inguruabarrak aldatu direlako. Horrelakoetan, erakunde interesdunari entzunaldia emango dion espediente izapidetuko da.

#### IV. KAPITULUA

#### HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO ERAKUNDEEN UDAL-ERREGISTROA.

##### 31. artikulua.- Erregistroa sortzea.

5. Gueñesko Udalak herritarren parte-hartzerako erakundeen erregistro bat egin ahal izango du.Herritarren parte-hartzerako erakundeak erregistro horretan izenik ez emateak ez du inolaz ere eragotziko Gueñesko Udalak deitutako prozesuetan parte hartzea.
6. Gueñesko Udalaren herritarren parte-hartzerako erakundeen erregistroa gaika edo sektoreka antolatuta egongo da, eta herritarren parte-hartzerako erakunde bakoitza dagokion atalean inskribatuko da, haientzat lehentasuna duten esku-hartze esparruen arabera; hala ere, horrek ez du eragozten interes orokorrak defendatzeko herritarren parte-hartzerako erakunde gisa erregistratu ahal izatea.Gaika sailkatzearen helburua da gauzatzen diren erabakitze-prozesuetan errazago esku hartu ahal izatea.
7. Ez da beharrezkoa helburu zehatz batekin eta soilik aldi baterako sortzen diren plataformak, foroak eta sareak erregistroan inskribatzea.Hala ere, araudi honetan arautzen diren prozesuetan parte hartu nahi izanez gero, aurretik Udalari edo erregistroari jakinarazi beharko diote hori sustatzen duten pertsonen nortasuna; horrez gain, egiaztagiriak aurkeztu beharko dira eta jakinarazpenetarako helbide bat eman beharko da, baita jarduketaren xedea edo esparrua zehaztasunez adierazi ere.
8. Herritarren parte-hartzerako erakundeen Udal Erregistroak bi helburu hauek ditu:
  - a) Inskribatutako erakundeak aintzat hartu eta Araudi honek nahiz indarrean dagoen legediak ematen dizkien eskubideez baliatzeko duten aukera bermatzea udal-eremuan.
  - b) Udalak jakin ahal izatea zenbat erakunde dauden, zein helburu, ordezkagaitasun, interes eta onura publiko duten, elkartegintza sustatzeko udal-politika zuzena egin ahal izateko.

##### 32. artikulua.- Inskribatzearen ondorioak.

1. Araudi honetan herritarren parte-hartzerako erakundeei aitortutako eskubideak, herritarren parte-hartzerako erakundeen Udal Erregistroan inskribatuta daudenek bakarrik eskatu ahal izango dituzte.

### 33. artikulua.- Inskribatzeko eskubidearen titularrak.

Herritarren parte-hartzerako erakundeen Udal Erregistroan inskribatu ahal izango dira 29. artikuluan definitutakoak eta 20. artikuluan kanpora utzita ez daudenak.

### 34.-artikulua.- Inskribatzeko prozedura.

Herritarren parte-hartzerako erakundeek Gueñesko Udalaren erregistro elektronikoaren bidez eskatuko dute Udal Erregistroan sartzeko. Horretarako, honako agiri hauek erantsi beharko dituzte (araudi hau indarrean sartzen den unean jada inskribatuta daudenek izan ezik):

- j. Estatutuak.
- k. Eusko Jaurlaritzaren elkarten erregistroan izena eman izanaren ziurtagiria.
- l. Zuzendaritza karguak dituzten pertsona fisikoak, euren helbideak eta harremanetarako telefono-zenbakiak egiaztatzeak akta edo ziurtagiria.
- m. Erakundearen helbidea eta, hala badagokio, egoitza soziala(k).
- n. IFZ
- o. Jardueren programa.
- p. Eskabidea egin denean duten kide kopuruaren ziurtagiria.
- q. Jarduteko lurralde-esparrua.
- r. Erakundearen urteko aurrekontua.

### 35. artikulua.- Epea.

Agiriak zuzen egonez gero, izena emateko eskabidea egin zenetik hamabost eguneko epean jakinaraziko dio Udalak herritarren parte-hartzerako erakunde interesdunari bere inskripzio-zenbakia. Une horretatik aurrera, alta emanda dagoela ulertuko da, ondorio guztietarako.

### 36. artikulua.- Aldaketak.

1. Herritarren parte-hartzerako inskribatutako erakundearen datuak aldatuz gero, Erregistroari jakinarazi beharko diote, aldatu eta hilabeteko epean. Aurrekontua eta urteko jardueren programa urtarrilean jakinaraziko dira; halaber, kide kopuruari buruz eguneratutako egiaztatzea ere emango da.

2. Betebehar horiek behin eta berriro bete gabe geratzen badira eta Udalak horri buruz egindako eskariei kasurik egiten ez bazaie, Alkatetzak Erregistroan baja emateko ebazpena eman dezake.
3. Baja izan daiteke:
  - c) Borondatezkoa, herritarren parte-hartzerako erakundeak hala eskatu badu. Bertako legezko ordezkariak egin beharko du.
  - d) Ofizioz izapidetutakoa. Nolanahi ere, herritarren parte-hartzerako erakundea desegin bada edo erakundeak Udalarekin zituen betebeharrak bete ez badira gertatuko da hori, aurreko zenbakian xedatutakoaren arabera.

#### 37. artikulua.- Publizitatea.

3. Herritarren parte-hartzerako erakundeen erregistroa publikoa da. Pertsona edo erakunde publiko zein pribatu orok du Udal Erregistroa kontsultatzeko eskubidea, legeak babestutako datu pertsonalak izan ezik.
4. Udalaren webgunean, herritarren parte-hartzerako inskribatutako erakundeen eta horien datuen zerrenda zehatza azalduko da, Legeak babestutako datuak izan ezik.

### **III. TITULUA.HERRITARREN PARTE-HARTZEA.**

#### I. KAPITULUA

#### 38. artikulua.- Parte-hartzea sustatzea.

Gueñesko Udalak beharrezko bitartekoak jarriko ditu herritarren parte-hartze prozesuen garapena behar bezala egiteko. Barne Araudiaren Batzordea arduratuko da herritarren parte-hartzerako ereduak diseinatzeaz, horiek sustatzeaz,



antolatzeaz, planifikatzeaz eta kudeatzeaz. Prozesu horietan, parte-hartze prozesuaren xede den arloko ezagutzak dituzten udal-teknikariek ere parte hartu ahal izango dute.

## **AZKEN XEDAPENA**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean araudi hau.